

Umami: unibertsoaren hedapena deskribatzeko eredu kosmologiko berria

Unibertsoa gero eta azkarrago ari da hedatzen, baina fisikarientzat zaila da horren azalpen teorikoa garatzea, ez baitakite hedatze hori zer abiaduran gertatzen ari den ere. EHUko Grabitazioa eta Kosmologia ikerketa-taldeak unibertsoaren hedapen hori azaldu nahi duen eredu fisiko-matematiko bat proposatu du oraingoan, beste ikertzaile batzuekin elkarlanean. Egileen arabera, bat datoz ereduak ematen dituen emaitzak eta datu astrofisiko errealak.

materia ilunak bai ohiko materiak, baina, harrigarriki, aldarapena ere eragin dezake, energia ilunak egiten duen eran. Gure proposamenaren arabera, litekeena da fluidoaren egoera denborarekin aldatuz joatea, zehazki, materiaren eta energia ilunaren proportzioak aldatu direlako. Horrenbestez, hasieran erakarpenezko joera izango zatekeen nagusi, hau da, kolapsoa, eta, gerora, berriz, aldarapenerantz joko zukeen”.



Unibertsoaren hedapena azaltzen duen eredu kosmologiko berria proposatu dute EHUko ikertzaileek. ARG.: NASA, ESA eta Hubble Heritage Team.

Physics of the Dark Universe aldizkarian argitaratu dute lana. Chaplygin eredu deritzenen taldekoa da proposatutako eredu kosmologikoa. “Unibertso materia guztia, hau da, iluna eta barionikoa, eta energia iluna fluido bakar batean biltzen ditu ereduak”, azaldu du Ruth Lazkoz ikertzaileak [EHUren prentsa-oharrean](#). “Grabitazioak gorputzen arteko erakarpena eragin dezake, eta hala egiten dute bai

Ereduaz, unibertsoaren hedatze-abiadura kalkulatu dute. Berez, bi ikerketa-talde handi lehian ari dira aspaldian balio hori definitzeko, eta elkarrengandik oso urrun dauden balioak eman dituzte. EHUko ikertzaileen balioa, ordea, bi horien erdibidean dago, “bien arteko adostasun-puntu batean”, ikertzaileen esanetan. Era guztietara, eredu sakontzen jarraitu beharra dagoela aitortu dute. ●